

# LAZKAO

| # 09 | 2017 MAIATZA |



LAZKAOKO  
UDALA

*Lazkaoko etxebizitzen  
inguruko azterketa egin da  
Se ha elaborado un estudio sobre  
la vivienda en Lazkao*



LANGABEZIA LAZKAON  
EL DESEMPLEO EN LAZKAO

11-14





## LAZKAOKO ETXEBIZITZEI BURUZKO AZTERKETA

Lazkaoko etxebizitzei buruzko azterketa egin berri du udalak. Azterketa 2016ko amaieran eta 2017ko lehen hilabetetan egin du Ikertaldek, eta, guztira, herriko **798 familiatan** egin den inkestaren bidez bildu dira datuak. Lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonak dauden, edota etxebizitza birgaitzeko edo aldatzeko premia duten familien irudi erreala, ia erroldaren parekoa, eskuratu ahal izan dugu:

- 500 familiaz osatutako lehen lagin bat hartu dugu Lazkaoko familia guziak kontuan hartuta.
- Ondoren, beste lagin osagarri bat hartu dugu 298 familiatan, 18-25 urte bitarteko lagunen bat emantzipatu gabe bizi den familiak kontuan hartuta.

Txosten guzta:  
[lazkao.eus](http://lazkao.eus)



## ESTUDIO DE VIVIENDA EN LAZKAO

Desde el Ayuntamiento y de la mano de Ikertalde, se ha elaborado un estudio sobre la situación y necesidades de vivienda en Lazkao. Los datos se han recogido entre finales de 2016 y principios de 2017 mediante una encuesta realizada en **798 hogares** de Lazkao, y han permitido ofrecer una imagen prácticamente censal de los hogares con personas con necesidades de acceso a la primera vivienda, así como de las necesidades de rehabilitación y cambio de vivienda:

- Se ha tomado una primera muestra de 500 hogares sobre el conjunto de hogares de Lazkao.
- Despues, una segunda toma complementaria sobre 298 hogares adicionales centrada en los hogares que disponen de al menos una persona de 18 a 35 años no emancipada.

Informe completo:  
[lazkao.eus](http://lazkao.eus)



## 1. ETXEBIZITZEN KARAKTERIZAZIOA

Lazkaoko familien % 87,5 jabetza-erregimenean bizi da gaur egun, eta jabetzako etxebizitzen zorpetze-maila ez da oso handia:

- Hiru etxebitzatik bik (% 68) kargarik gabe dute etxebitzitza, hau da, ez dute hipoteka-mailegurik ordaindu behar. Oraindik zorpetuta dauden etxebizitzen artean, % 20 besterik ez da ari 600 euro baino gehiagoko hileko kuota ordaintzen (amortización + interesak).
- Alokairuaren pisu erlatiboa % 10,3koa da, Euskadi osoko % 22 baino baxuagoa. Ordaindutako batez besteko errenta hileko 450 eta 600 euro artekoa da kasu gehienetan.

Oro har, argi ikusten da **gehieneak nahiago dutela jabetza**. Hain zuzen ere, **alokairua hautatu duten etxebitzitza gehienetan arrazoi ekonomikoak aipatzen dira sarbide-mota hori aukera-tzeko**. Hala, gaur egun alokatuta dauden etxebizitzen % 12an (zortzi kasutik bat) soilik izan da borondatzeko hautua eta ez premiak behartutakoa. Zorpetza saihesteko nahiarekin eta mugikortasun geografikoak eskura izateko arrazoarekin lotzen da.

Lazkaotarren **%97,4 oso gustura** dago beraien etxebizitzen hiri-ingurunearen eta bizi diren auzoaren kalitatearekin. Hala ere, familien % 20k irisgarritasun-arazo esanguratsuak nabaritzen ditu, beraien etxebitzak eta eraikinak ez direlako irisgarriak desgaitasun fisikoren bat duten pertsona eta kolektiboentzat.

## 1. CARACTERIZACIÓN DE LOS HOGARES


El 87,5% de las familias de Lazkao residen actualmente en régimen de propiedad, y el nivel de endeudamiento por vivienda no parece especialmente elevado:

- Dos de cada tres hogares (68%) dispone de la vivienda sin cargas. Entre los hogares todavía endeudados, apenas el 20% estaría abonando una cuota mensual (amortización + intereses) superior a 600 euros.
- El peso relativo del alquiler se sitúa en el 10,3%, un nivel más reducido que el 22% del conjunto de la CAE. La renta media abonada se sitúa en la mayor parte de los casos entre 450 y 600 euros mes.


En términos generales, se detecta una clara preferencia por la propiedad. En la mayoría de casos que han optado por el alquiler se citan motivaciones económicas. Solamente en el 12% (uno de cada ocho casos) de los hogares que se encuentran actualmente en alquiler la opción ha sido claramente voluntaria. Se vincula a la voluntad de evitar el endeudamiento y al motivo de mantener su disponibilidad de movilidad geográfica.

El 97,4% de los hogares manifiesta un **elevado grado de satisfacción** en relación a la calidad del entorno urbano de sus viviendas y del barrio en el que viven. Pero se advierte una problemática significativa de accesibilidad en un 20% de los hogares, al no resultar ni sus viviendas ni sus edificios accesibles para personas y colectivos con algún tipo de discapacidad física.


Etxebitzaren edukitza-erregimena (%) / Régimen de tenencia de la vivienda (%)



**Alokairuko etxebizitza aukeratzeko arrazoia (%)**  
Motivo de elección de la vivienda en alquiler (%)




**Alokairuan bizi diren familien banaketa, ordaindutako errentaren arabera**  
Distribución de los hogares en alquiler según la renta abonada



**Etxebizitzen ingurunearen balorazioa / Valoración del entorno de las viviendas**

**Alokairuko etxebizitza aukeratzeko arrazoia (%)**  
Motivo de elección de la vivienda en alquiler (%)



**Ba al dago zure auzoan/ingurunean arazo hauetakoren bat? (%)**  
¿Existen en su entorno/barrio alguno de los siguientes problemas? (%)



## 2. ETXEBIZITZEN BIRGAITZEA

Lazkaoko etxebizitzen artean, etxebizitza birgaitzeko premia % 13,5 ingurukoa da eta etxebizitza aldatzekoa, berriz, %5,9koa.

Etxebizitza aldatzeko premia duten familien % 64,3k aldaketa hori bi urte baino lehen egitea dute pentsatuta. Gehienek Lazkaon bertan geratzea aurreikusten dute.

Etxebizitza aldatzeko premia duten familien %56k etxebizitzen tamaina txikia, irisgarritasun-baldintza egokirik ez izatea eta etxebizitzen egoera jartzen dituzte aldaketa egiteko arrazotzat. Halaber, aldaketa-premia duten familia gehienek (kasuen % 60) hiru logelako edo gehiagoko etxebizitza batera aldatu nahi dute.


## 2. NECESIDADES DE REHABILITACIÓN DE LOS HOGARES

Entre los hogares de Lazkao, la necesidad de rehabilitación se sitúa en un 13,5%, mientras que la necesidad de cambio de vivienda en un 5,9%.


La mayor parte de estos hogares con necesidad de cambio de vivienda prevé realizar este cambio en un horizonte inferior a dos años (64,3%) y la gran mayoría quiere mudarse dentro del propio municipio.

El 56% de los hogares con necesidad de cambio lo justifica por el reducido tamaño de las viviendas, la falta de condiciones necesarias de accesibilidad y el estado de las viviendas. Asimismo, la mayor parte de hogares con necesidad de cambio, se plantea acceder a viviendas de tres o más dormitorios (60% de los casos).


**Zein elementu erkide birgaitzeko beharra duzu? (birgaitzeko premia adierazi duten familia guztien gaineko %-a)**  
**¿Qué elementos comunes necesita rehabilitar? (% sobre los hogares que indican la necesidad de rehabilitación)**




**Zure etxebitztako zein elementu birgaitzeko beharra duzu? (birgaitzeko premia adierazi duten familia guztien gaineko %-a)**  
**¿Qué elementos de la propia vivienda necesita rehabilitar? (% sobre los hogares que indican la necesidad de rehabilitación)**



**Etxebizitza aldatzeko premiaren arrazoia (aldatzeko premia adierazi duten familia guzten gaineko %-a)**  
**Motivo de la necesidad de cambio (% sobre los hogares que plantean la necesidad de cambio)**



**Udalerria aldatzeko prestutasuna, tokiaren arabera (etxebizitza aldatzeko beharra adierazi duten familia guzten gaineko %-a)**  
**Disponibilidad a cambiar de municipio según lugar de traslado (% sobre los hogares que plantean la necesidad de cambio)**




### 3. ETXEBIZITZA HUTSAK

Aplikatutako detekzio eta azterketa prozesuek 119 etxebizitzatan finkatu dute udalerriko etxebizitza hutsen kopurua. Horrek esan nahi du ratioa % 5eko dela, hau da, Lazkao inguruco udalerrietan, Gipuzkoa osoan eta antzeko tamainako udalerrietan detektatutakoa baino txikiagoa dela, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutssei buruzko Inkestaren arabera.

Etxebizitza horien jabeei egindako elkarriketetatik hainbat ondorio interesgarri lortu dira:

- Etxebizitzen proportzio handi bat eskaintzan dago une honetan eta, horregatik, ezingo litzateke mugiarazi programa edo laguntzaren batekin.
- Etxebizitza gehienak epe laburrean erabiltzeko egoera egoian daude.

**Etxebizitza hutsak lurralde historikoaren arabera 2013-2015**  
Vivienda vacía por Territorio Histórico. 2013-2015



### 3. VIVIENDA VACÍA EN EL MUNICIPIO


Los procesos de detección y análisis aplicados han situado en 119 las viviendas deshabitadas del municipio, lo que supone un ratio del 5% inferior al nivel detectado en los municipios del entorno de Lazkao, en el conjunto de Gipuzkoa y en los municipios de dimensión similar del territorio según la Encuesta de Vivienda Vacía del Gobierno Vasco.

De las entrevistas realizadas con los propietarios/as, se desprenden algunos elementos de interés:

- Una proporción elevada de las viviendas ya está en oferta en este momento, de forma que no sería susceptible de movilizar con algún tipo de programa o ayuda.
- La mayor parte se encuentran en un estado adecuado para su uso a corto



**Etxebizitza hutsak udalerriaren tamainaren arabera. 2013-2015 (estratukako etxebizitza-parkearen gaineko ehunekoak)**  
Viviendas por tamaño del municipio según el tipo. 2013-2015 (Porcentajes sobre el parque de viviendas por estrato)



\* Lazkaori dagokion segmentua

\* Segmento al que pertenece Lazkao

## 4. LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO PREMIA

Inkestako datuen arabera, **Lazkaoko familien %5,5ean lehen etxebizitza eskuratzeko premia duen pertsona bat, gutxiez, badago** (inuesta egiteko unean emantzipatu gabe dagoena). Ehuneko hori **Gipuzkoako lurraldlean detektatutako % 7,5 baino zerbaite apalagoa da.**

Emantzipatu gabe dauden eta lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazten duten 122 pertsona daudela kalkulatu da.

- Azterketak erakusten du lehen etxebizitza eskuratzeko premia duen kolektibo horren proportzio handi bat laneko eze-gonkortasun-egoeran dagoela: **bost pertsonatik bakarrak du une honetan kontratu mugagabea.**

- Pertsona horien **diru-sarrerak** (etxebizitza bikoteak eskuratu gero haien batera emantzipatuko liratekeen pertsonen diru-sarrerak barne) **ez dira urtean 15.000 eurotik gorakoak 10 kasutik 6tan.**

- Premia hori duten pertsonen **hiru kasutik bakarrak (% 30) uste du diru-sarrera horiek behar adinakoak eta egonkorra**k direla etxebizitza bat erosteko edo alokairuan hartzeko eta, modu horretan, emantzipatu ahal izateko. 40-45 pertsona izango lirateke hala uste dutenak. Gainerakoek zaila dute benetako eskaera bat gauzatzea, baita etxebizitza babestua izanda ere.

- Datuen arabera, lehen etxebizitza eskuratzeko premia adierazten duten pertsonen erdiak baino zerbaite gehiagok (% 58) uste dute datozen bi urteetan emantzipatu ahal izango direla, eta hori oso garrantzitsua da hurrengo urteetan sustatu beharreko etxebizitzen premia aztertzeko orduan.



*Kontuan izan behar da udalerri mugakideetako pertsonen eta familien eskaera exogenoa ere.*

- Saldutako azken sustapenetan, **Lazkaoko etxebizitza berri libre asko beste udalerri batzuetan erroldatutako pertsonek erosi dituzte.** Hala, Lazkaon egin berri diren etxebizitza-sustapenetan (Elosegi kalea, Esparru eta Iturrialdea) etxebizitza berri libre bat erosi duten pertsonen jatorriari buruz eskuragarri dauden datuen arabera, kasuen %46an bizikidetza-unitateko kide bat ere ez zegoen aurretik Lazkaon erroldatuta. Pertsona eta familia horietako asko udalerri mugakideetik etorritakoak dira.

## 4. LAS NECESIDADES DE ACCESO A LA PRIMERA VIVIENDA

Según los datos de la encuesta, en el 5,5% de los hogares de Lazkao se ha detectado al menos una persona que manifiesta necesidad de acceso a la primera vivienda (no se encuentra emancipado en el momento de realizar la encuesta). Este porcentaje se sitúa algo por debajo del 7,5% detectado para Guipúzcoa.

Se estima que un total de 122 personas forma parte de este colectivo no emancipado y que manifiesta la necesidad de acceso a la primera vivienda.

- El estudio muestra la situación de precariedad laboral en una proporción importante de este colectivo de personas con necesidad de acceso a la primera vivienda: **solamente una de cada cinco personas que manifiesta esta necesidad dispone en este momento de un contrato indefinido.**

- **El nivel de ingresos de estas personas** (incluyendo los ingresos de las personas que se emanciparían junto con las mismas en los casos de acceso en pareja) **no supera los 15.000 euros anuales en 6 de cada 10 diez casos.**

- Solamente en uno de cada tres casos (30%) las propias personas con necesidad califican este nivel de ingresos como suficientes y estables para poder acceder a la compra o alquiler de una vivienda y poder emanciparse. Estaríamos hablando de 40-45 personas. El resto difícilmente va a materializar una demanda efectiva, incluso en el caso de que fuera protegida.

- Según los datos, apenas algo más de la mitad de las personas que manifiestan esta necesidad de acceso a la primera vivienda (58%) cree que va a poder emanciparse en los próximos dos años; lo que resulta especialmente relevante a la hora de analizar las necesidad de viviendas a promover en los próximos años.




*Hay que tener en cuenta la demanda exógena de personas y familias de municipios limítrofes.*

- En las recientes promociones vendidas, **un porcentaje significativo de las viviendas nuevas libres de Lazkao son compradas por personas empadronadas en otros municipios.** Así, según los datos disponibles del origen de las personas que han adquirido una vivienda nueva libre en las recientes promociones de vivienda llevadas a cabo en Lazkao (calle Elosegi, Esparru e Iturrialdea), en el 46% de los casos ningún miembro de la unidad de convivencia estaba empadronado previamente en Lazkao. Buena parte de estas personas y familias provienen de los municipios limítrofes.


**Etxebitzitza eskuratzeko premia duten pertsonak, horretarako aurreikusten duten epearen arabera  
(etxebitzitza eskuratzeko premia duten pertsonen gaineko %-a)**

Personas con necesidad de acceso según el plazo en el que prevén acceder a una primera vivienda  
(% sobre personas con necesidad de acceso)




**Etxebitzitza eskuratzeko premia duten pertsonak, horretarako arrazoiaren arabera  
(etxebitzitza eskuratzeko premia duten pertsonen gaineko %-a)**

Personas con necesidad de acceso según el motivo de la necesidad de acceso  
(% sobre personas con necesidad de acceso)



**Alokairuaren alde egiten duten pertsonen ordain lezaketen errenta  
Renta que podrían asumir las personas que optan por el alquiler**



## 4.1 Eskatutako etxebizitza-mota

Etxebizitza erosketa libreko erregimenean (bigarren eskukoa edo berria) eskatzen duten pertsonen pisu erlatiboa lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsona guztiak %29 inguruko da. Eskaera gehienak alokairuarekin edo azalera-eskubidean babestutako etxebizitzarekin zerikusia duten beste formula batuetara bideratzen dira.

Azken urteetan garatutako sustapen berrien prezio-maila baxuari erreparatzen badiogu, ehuneko hori ez da handia Gipuzkoako beste udalerri batzuetako batez besteko prezioarekin alderatuta.

Nahikoa diru-sarrera duten pertsonek gehien eskatutako etxebizitza-mota hiru logelakoa eta 85 metro koadro inguruko azalerakoa da. Alokairuen kasuan, tamaina txikiagoko etxebizitzak nahi izaten dira (bi logela eta 65 metro koadro).


## 4.2 Tipo de vivienda demandada

El peso relativo de las personas que demandan específicamente una vivienda en régimen de compra libre (usada o nueva) se sitúa en el 29% del total de personas con necesidad de acceso a la primera vivienda, de forma que la mayor parte de la demanda se orienta a otro tipo de fórmulas vinculadas al alquiler o la vivienda protegida en derecho de superficie.


Este porcentaje no es elevado, si nos atenemos a lo reducido del nivel de precios de las nuevas promociones desarrolladas en los últimos años, en comparación con el precio medio en otros municipios del territorio gipuzkoano.

El tipo de vivienda demandado por las personas con ingresos suficientes son de tres habitaciones y de una superficie media en torno a los 85 metros cuadrados. En el caso de la demanda de alquiler, el tipo de vivienda resulta de menor dimensión (dos habitaciones y 65 metros cuadrados).

**Etxebizitza-eskaria, jabetza-erregimenaren eta etxebizitzaren tamainaren arabera (etxebizitza-premia dutenen pertsonen gaineko %-a, erostearen edo alokairuaren alde egiten duten bereizita)**  
**Demanda de vivienda según régimen de tenencia y dimensión de las viviendas**  
(% de sobre personas con necesidad de acceso, según optan por la compra o el alquiler)



**Etxebizitza-eskaria, diru-sarreren, jabetza-erregimenaren eta etxebizitzaren tamainaren arabera (etxebizitza-premia dutenen pertsonen gaineko %-a, diru-sarrera nahikoak ala ez-nahikoak dituzten bereizita)**  
**Demanda de vivienda según ingresos, régimen de tenencia y dimensión de las viviendas (% sobre personas con necesidad de acceso según cuentan con ingresos suficientes o insuficientes)**



# Langabezia azterketa

Lazkaoko Udal eta Goieki elkarlanean ari dira herriko langabeziaren azterketa egiteko. Goieki eskualde osorako egiten ari den azterketarekin uztartuko dute herriko lan-keta. Etorkizunean alor honetan zein bide jorratu behar diren azterzeko, datu bilketa egiten ari da lehen fase honetan. Herritar guztiok Lazkaoko argazki orokor bat izan dezagun, datozen orriean urteko lehen hilabeteetan jasotako datuak ematen dira.

## Langabezia tasa 2017ko lehen hiru hilabetetan Tasa de desempleo en los tres primeros meses de 2017

LANGABEZI TASA / TASA DE PARO - 2017			
Lurraldea	Urtarrila Enero	Otsaila Febrero	Martxo Marzo
Euskadi	13,21	13,22	13,3
Gipuzkoa	11,07	11,08	11,2
Goierrri	9,26	9,21	
Lazkao	7,72	7,95	7,60
Lazkao: langabetu kopurua Número de desempleados	200	206	197

\* OHARRA: Azterketa otsaileko daturekin landu da, eta Lazkaoren kasuan martxoko datuak erantsi dizkiogu

\*NOTA: El estudio se ha realizado con datos correspondientes a febrero. En el caso de Lazkao hemos añadido los datos del mes de marzo

# Estudio sobre desempleo

El Ayuntamiento de Lazkao y Goieki trabajan conjuntamente para elaborar un estudio sobre el desempleo del municipio. El estudio se enmarca dentro del análisis que está elaborando Goieki para toda la comarca. En esta primera fase se están recopilando datos para analizar qué vías de trabajo seguir en un futuro. Para que todos tengamos una radiografía general de la situación, a continuación se muestran los datos obtenidos en los primeros meses del año.

## Atzerritarren kasuan, jatorriari buruzko xehetasunak Detalles de la procedencia de los extranjeros

OTSAILA - 2017 - FEBRERO			
	LAZKAO	GOIERRI	
Europar Batasuna Unión Europea	gizonezkoa / hombre	8	87
	emakumezkoa / mujer	8	99
	gutzira / total	16	186
Europa besteak Otros Europa	gizonezkoa / hombre	1	3
	emakumezkoa / mujer	1	6
	gutzira / total	2	9
Ipar Afrika África del Norte	gizonezkoa / hombre	5	71
	emakumezkoa / mujer	8	91
	gutzira / total	13	162
Afrika Subsaharaiarra África Subsahariana	gizonezkoa / hombre	2	36
	emakumezkoa / mujer	3	28
	gutzira / total	5	64
Amerika erdia eta hegoa América centro y sur	gizonezkoa / hombre	4	18
	emakumezkoa / mujer	3	22
	gutzira / total	7	40
Gainerako Asia Resto Asia	gizonezkoa / hombre	1	44
	emakumezkoa / mujer	1	43
	gutzira / total	2	87
Apatriada Apátrida	gizonezkoa / hombre	1	1
	emakumezkoa / mujer	2	6
	gutzira / total	3	7

### Langabezia adinaren arabera / Desempleo según la edad

ADINA / EDAD	LAZKAO			GOIERRI
		otsaila	martxoa	otsaila
< 20	gizonezkoa / hombre	3	3	24
	emakumezkoa / mujer	0	0	19
	guztira / total	3	3	43
20 - 24	gizonezkoa / hombre	6	5	47
	emakumezkoa / mujer	5	3	59
	guztira / total	11	8	106
25 - 29	gizonezkoa / hombre	10	11	83
	emakumezkoa / mujer	14	15	129
	guztira / total	24	26	212
30 - 34	gizonezkoa / hombre	4	5	73
	emakumezkoa / mujer	25	22	128
	guztira / total	29	27	201
35 - 39	gizonezkoa / hombre	8	7	81
	emakumezkoa / mujer	19	19	166
	guztira / total	27	26	247
40 - 44	gizonezkoa / hombre	8	8	104
	emakumezkoa / mujer	23	20	160
	guztira / total	31	28	264
45 - 49	gizonezkoa / hombre	5	5	99
	emakumezkoa / mujer	11	14	122
	guztira / total	16	19	221
50 - 54	gizonezkoa / hombre	10	9	91
	emakumezkoa / mujer	11	9	102
	guztira / total	21	18	193
55 - 59	gizonezkoa / hombre	15	14	103
	emakumezkoa / mujer	10	8	116
	guztira / total	25	22	219
> 59	gizonezkoa / hombre	8	7	75
	emakumezkoa / mujer	11	13	95
	guztira / total	19	20	170
Guztira Total	gizonezkoa / hombre	77	74	780
	emakumezkoa / mujer	129	123	1.096
	guztira / total	206	197	1.876

## Langabezia sektorearen arabera / Desempleo según el sector


SECTOR	LAZKAO			GOIERRI
		otsaila	martxoa	
Nekazaritza eta arrantza Agricultura y pesca	gizonezkoa / hombre	4	4	34
	emakumezkoa / mujer	1	1	9
	guztira / total	5	5	43
Industria	gizonezkoa / hombre	21	20	186
	emakumezkoa / mujer	16	16	137
	guztira / total	37	36	323
Eraikuntza Construcción	gizonezkoa / hombre	8	9	118
	emakumezkoa / mujer	1	1	21
	guztira / total	9	10	139
Zerbitzuak Servicios	gizonezkoa / hombre	35	35	372
	emakumezkoa / mujer	99	94	727
	guztira / total	134	129	1099
Aurreko lanik ez Sin empleo anterior	gizonezkoa / hombre	9	6	70
	emakumezkoa / mujer	12	11	202
	guztira / total	21	17	272
Guztira Total	gizonezkoa / hombre	77	74	780
	emakumezkoa / mujer	129	123	1096
	guztira / total	206	197	1876

## Langabezia jatorriaren arabera / Paro por procedencia - 2017

OTSAILA - 2017 - FEBRERO						
	LAZKAO			GOIERRI		
Estatuko Estado	gizonezkoa / hombre	55			520	
	emakumezkoa / mujer	103			801	
	guztira / total	158	76,7%		1.321	70,4%
Beste lurralte bateko Otros países	gizonezkoa / hombre	22			260	
	emakumezkoa / mujer	26			295	
	guztira / total	48	23,3%		555	29,6%
Guztira Total	gizonezkoa / hombre	77			780	
	emakumezkoa / mujer	129			1.096	
	guztira / total	206	100%	total	1.876	100%


## Langabezia ikasketen arabera / Desempleo según los estudios

● Lazkao ● Goierri



## Langabezia lanbidearen arabera / Desempleo según ocupación

● Lazkao ● Goierri





## En verano, tiempo libre y deporte

*Dirigido a niños y jóvenes, se han organizado dos campañas de verano: una dirigida al tiempo libre y otra al deporte.*

Dirigido a niños y jóvenes, se han organizado dos campañas de verano: una dirigida al tiempo libre y otra al deporte.

La campaña de tiempo libre está dirigido a jóvenes de 3º de Educación Infantil hasta 6º de Educación Primaria. Será del 26 de junio al 28 de julio, de lunes a viernes, en horario de 10:00 a 13:00. Cada niño deberá pagar una cuota de 69 euros, y las actividades, talleres y juegos se realizarán según el grupo y la edad de los niños.

Para los que prefieren practicar deportes este verano, se han organizado 15 cursillos. La novedad serán el triatlón y zumba txiki, y la campaña de deporte estará dirigida tanto a niños de 3º de Educación Infantil hasta 6º de Educación Primaria, así como a estudiantes de ESO y Bachiller.

Toda la información sobre los cursillos se puede obtener en el polideportivo. Si alguien o algún grupo tendría interés en realizar algún otro cursillo, que lo notifique en el polideportivo y se estudiará si se puede organizar.

**El último día para apuntarse en ambas campañas será el 28 de mayo.** Para inscribirse será necesario entregar en el polideportivo la correspondiente hoja debidamente rellenada.

## Udan, aisia eta kirola aukeran

*Haurrei eta gaztetxoei zuzenduta udako aisia eta kirol eskaintza antolatu da.*

Aisia kanpainia Haur Hezkuntzako 3.maiatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko umeei zuzenduta dago. Ekainaren 26tik uztailaren 28ra bitartean izango da, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara. Ume bakoitzeko 69 euroko kuota ordaindu beharko da, eta adinaren eta taldearen arabera hainbat ekintza, jolas eta tailer egingo dituzte.

Udako kirol kanpainari dagokionean, 15 ikastaro eskainiko dira aurten. Triatloia eta zumba txiki dira berrikuntzak. Kirol kanpainia Haur Hezkuntzako 3. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko

umeei eta DBH eta batxilergoko umeei zuzenduta dago. Azken horiei zuzenduta lau ikastaro antolatu dira.

Ikastaroei buruzko informazio guztia kiroldegian eskura daiteke. Norbanakoren edo talderen batek beste ikastaroren bat egain nahiko balu, jakinarazi dezala kiroldegian eta aztertuko da antolatzeko aukerarik badagoen.

Aisaldi zein kirol kanpainia **izena emateko epea maiatzaren 28ra artekoa izango da.** Izena eman nahi duenak kiroldegian utzi beharko du izen-emate orria.

## Ekainean berritu behar dira urteko kirodegiko bazkidetzak

Kirodegiko urteko bazkidetza ekainean berritu behar da, beranduenera hilaren 30erako. Bazkidetzan aldaketaren bat egin nahi duenak edo baja eman nahi duenak ere ekainaren 30era arteko epea izango du. Jakinarazpenik egiten ez duenari automatikoki berrituko zaio bazkidetza.

KIROLEGI OSOKO BAZKIDETZA / SOCIO POLIDEPORTIVO PLUS		
	Udako Temporada verano	Urtekoa Anual
Banakako heldua Individual adulto	<b>99,20 €</b>	<b>114,35 €</b>
Banakako gaztea Individual menor	<b>49,60 €</b>	<b>77,80 €</b>
Banakako jubilatu-pensionista Jubilado-pensionista individual	<b>74,55 €</b>	<b>107,55 €</b>
Familiarra Familiar	<b>151,00 €</b>	<b>221,80 €</b>
Jubilatu-pensionista familiarra Jubilado-pensionista familiar	<b>108,70 €</b>	<b>157,45 €</b>

\* Barne dago: igerilekua, giharretze gela, udako igerilekuak. Deskontuak saunan, alokairuetan, ikastaroetan. Incluye: piscina, sala de musculación, piscina de verano. Descuentos en sauna, alquileres, cursos.

## Los bonos del polideportivo anuales hay que renovarlos en junio

En junio toca renovar los bonos anuales de socio del polideportivo, antes del día 30. Los que deseen hacer algún cambio o los que quieran darse de baja, también tendrán como plazo el 30 de junio. A los que no notifiquen nada se les renovará automáticamente el bono.

KIROLEGI BAZKIDETZA / SOCIO POLIDEPORTIVO			
	Hiru hilabete Trimestral	Sei hilabete Semestral	Urtekoa Anual
Banakako heldua Individual adulto	<b>55,25 €</b>	<b>82,60 €</b>	<b>110,15 €</b>
Banakako gaztea Individual menor	<b>27,50 €</b>	41,40 €	55,25 €
Banakako jubilatu- -pensionista Jubilado-pensionista individual	<b>41,40 €</b>	<b>62,10 €</b>	<b>82,70 €</b>
Familiarra Familiar	<b>80,65 €</b>	<b>121,10 €</b>	<b>161,50 €</b>
Jubilatu-pensionista familiarra Jubilado-pensionista familiar	<b>60,30 €</b>	<b>90,80 €</b>	<b>121,00 €</b>

\* Barne dago: igerilekua eta giharretze gela. Deskontuak saunan, alokairuetan, ikastaroetan. / Incluye: piscina y sala de musculación. Descuentos en sauna, alquileres, cursos.

IGERILEKUKO BAZKIDETZA / SOCIO DE LA PISCINA			
	Hiru hilabete Trimestral	Sei hilabete Semestral	Urtekoa / Anual
Banakako heldua Individual adulto	<b>44,00 €</b>	<b>66,25 €</b>	<b>88,20 €</b>
Banakako gaztea Individual menor	<b>22,00 €</b>	<b>33,20 €</b>	<b>44,15 €</b>
Banakako jubilatu-pensionista Jubilado-pensionista individual	<b>33,20 €</b>	<b>49,00 €</b>	<b>66,25 €</b>
Familiarra Familiar	<b>64,40 €</b>	<b>99,40 €</b>	<b>132,55 €</b>
Jubilatu-pensionista familiarra Jubilado-pensionista familiar	<b>49,80 €</b>	<b>74,50 €</b>	<b>99,25 €</b>

## KANPOKO IGERILEKUAK

**Ekainaren 10ean irekiko dituzte kanpoko igerilekuak**  
Ekainaren 10ean irekiko da estaligabeko igerileku en denboraldia, irailaren 10era arte. Denbora tarte horretan egunero egongo da irekitia, 11:00etatik 20:30era. Ekainaren 12tik 21era eta irailaren 4tik 8ra, ordea, arratsaldeko ordutegian bakarrik irekiko da: 14:30etik 20:30era. Abuztuaren 5ean, larunbata, puzgarriak egongo dira.

### Las piscinas de verano se abrirán el 10 de junio

La temporada de las piscinas de verano comenzará el 10 de junio, y finalizará el 10 de septiembre. Durante ese periodo, las piscinas estarán abiertas todos los días, de 11:00 a 20:30. En cambio, del 12 al 21 de junio y del 4 al 8 de septiembre sólo se abrirán por la tarde: de 14:30 a 20:30. El 5 de agosto habrá hinchables.

UDAKO IGERILEKUKO BAZKIDETZA SOCIO DE LA PISCINA DE VERANO	
	Udako denboraldia Temporada verano
Banakako heldua Individual adulto	<b>55,25 €</b>
Banakako gaztea Individual menor	<b>27,50 €</b>
Banakako jubilatu-pensionista Jubilado-pensionista individual	<b>41,40 €</b>
Familiarra Familiar	<b>80,65 €</b>
Jubilatu-pensionista familiarra Jubilado-pensionista familiar	<b>60,30 €</b>



## Hobekuntza eta mantentze lanak

Iaz hasitako hobekuntza eta lanekin jarraituz, datozen egunetan hainbat eserleku eta pergola bat jarriko dira San Prudentzioko kantxaren ondoan. Eserita egoteko aukera ematen duen gunea sortzea da asmoa, eta, bide batez, udan itzala egongo den leku bat egokitzea.

Lartxai inguruan hasitako hobekuntza lanen barruan, zabor edukiontzia gordetzeko leku bat egokitu da. Hala, babestuago ego-teaz gain, ingurunearekin integratzea da helburua.

Beste hainbat zaborgunetan ere egokitze lanak egin dira. Poltsak edukiontzieta sartzea errazten duten plataformak egin dira zoruan, edukiontzia espalotik gertuen egon daitezen zentradoreak jarri dira eta zorua margotu da edukiontzien eremua hobeto bereiztu eta garbitasuna ziurtatzeko. Bestalde, Sasieta heldulekuak jarri ditu edukiontzi marroieta eta griseta, zabor poltsa botatzerakoan edukiontzien estalkia irekitzerakoan erraztasun gehiago izateko. Dena aurreikusi bezala badoa, udan edukiontzi hori guztiak berrituko eta aldatuko dira.

Azkenik aipatu, Hirigoien 34 parean dagoen autobus geltokian hainbat berritze lan egin dira, erabiltzaileen irisgarritasuna hobetzeko. Espaloi zatia handitu egin da orain arteko koska kendu eta erabiltzaileak autobusera errazago igotzeko.



## Trabajos de mejora y mantenimiento

Continuando con los trabajos de mejora emprendidos el año pasado, durante los próximos días se colocarán unos bancos con una pérgola en la cancha deportiva de San Prudencio. Se pretende habilitar un espacio para poder estar sentado y al mismo tiempo ofrecer algo de sombra durante el verano.

De igual modo siguiendo con las mejoras iniciadas, en el entorno de Lartxai se ha habilitado un espacio para que los contenedores de basura queden más protegidos y evite el impacto visual del entorno.

También se han llevado a cabo el acondicionamiento de algunos de los puntos de recogida de basura. Los trabajos han consistido en la adecuación de plataformas que faciliten el depósito, la colocación de centrales que hagan que los contenedores estén lo más cerca posible de las aceras, y el pintado del suelo. Con esto último se pretende lograr una mayor limpieza del entorno. Por otra parte, desde Sasieta se ha procedido a colocar unas manillas a los contenedores gris y marrón que facilitan el depósito de las bolsas. Si todo sigue según lo previsto, durante el verano se procederá a la renovación y sustitución de todos los contenedores amarillos.



Para terminar, mencionar que se han realizado obras de acondicionamiento en la parada de autobús de Hirigoien 34. Con estas mejoras se pretende posibilitar la accesibilidad a los autobuses, que el retranqueo existente hasta ahora imposibilitaba.

# LABURRAIK

## KONSUMOARI BURUZKO IKASTAROA

Lazkaoko Udalak, Lazkaon merkataritza el-kartearekin eta Kontsumobiderekin elkarlanean, kontsumoari buruzko ikastaroa antolatu du kontsumitzaleentzat eta herrian negozio bat dutenengatzat. Bakoitzaz zein araudik babesten duen, kontsumo gatazka zetzen eta Kontsumoko Arbitraje Sistema zertan datzan azalduko da.

Ikastaroa hilaren 30ean da, 15:00etan, udaldeTxean, eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Bertan parte hartzeko aurrez eman behar da izena, maiatzaren 23a baino lehen, [sustapena@lazkao.eus](mailto:sustapena@lazkao.eus) helbidean edo 943 08 80 telefonoan.

## CURSO SOBRE CONSUMO

EL Ayuntamiento de Lazkao, junto con la asociación de comerciantes Lazkaon y Kontsumobide, ha organizado un curso sobre consumo dirigido a consumidores y a cualquiera que pertenezca a un negocio en el municipio. En el curso se explicará sobre la legislación que protege tanto a consumidores como a comerciantes, qué es un conflicto de consumo y el sistema arbitral de consumo.

El curso se impartirá el 30 de mayo a las 15:00, en el ayuntamiento, y tendrá una duración de hora y media. Para participar en el mismo habrá que inscribirse antes del 23 de mayo en la dirección [sustapena@lazkao.eus](mailto:sustapena@lazkao.eus) o llamando al 943 08 80 80.

## IPARRA-HEGOA PROGRAMARAKO LAGUNTZAK

2017ko ekitaldiari dagokion Iparra-Hegoa lankidetza programak antolatu eta garatzeko diru laguntzak emango ditu aurten ere Lazkaoko Udalak. Ekainaren 14ra arteko epea dago eskaerak egiteko. Eskaera inprimakia udaletxeen edo [lazkao.eus](http://lazkao.eus) helbidean eskurra daiteke. Udalak 52.000 euroko aurrekontua bideratuko du Iparra-Hegoa lankidetza programara.

## AYUDAS PARA EL PROGRAMA NORTE-SUR

Ya está abierto el plazo para la petición de las subvenciones para la organización y desarrollo de programas de cooperación Norte-Sur que otorga el Ayuntamiento de Lazkao. El plazo permanecerá abierto hasta el 14 de junio. Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que será facilitado en el ayuntamiento o en [lazkao.eus](http://lazkao.eus). El ayuntamiento destinará un presupuesto de 52.000 euros para los proyectos de cooperación de Norte-Sur

## SAN INAZIOKO ZUBIA

San Inazioko zubia zabaltzeko lanak hasi dira. Errepidearen bi aldeetara dauden espaloiaq zabalduko dira eta bidegorria egokituko da. Guztira, lanak amaitu ondoren, zubiak 15 metro zabal izango ditu.

Lanek irauten duten bitartean bi norazkotan trafikoa irekita mantentzen saiatuko da. Hala ere, une konkretu batzuetan mozketak egitea ezinbestekoa izango da. Horrez gain, ibaiaren ondoan dagoen San Inazioko irteera itxi egindo da.

Lanek sor ditzaketen eragozpenen berri emango den arren, dei berezia egiten dugu oinezkoentzat eta ibilgaluentzako dauden alternatibak erabili daitezen. Lanen iraupena 3 eta 4 hilabete artekoa izatea aurreikusten da.

## PUENTE DE SAN IGNACIO

Comienzan las obras para ampliar el puente de San Inazio/Areso. Se ampliarán las aceras a ambos lados del vial así como la adecuación y ampliación del bidegorri. La plataforma adquirirá una superficie de 15 metros de ancho.

Durante la ejecución de la obra se tratará de mantener la circulación rodada en ambos sentidos. No obstante, en ciertos momentos será necesario realizar cortes con paso alternativo. Por necesidades de obra se cerrará la salida de San Ignacio existente junto al río.

Si bien trataremos de ir informando sobre las afecciones que existan en cada momento, queremos hacer un llamamiento a utilizar las alternativas existentes tanto para el tránsito peatonal como para el de vehículos. La duración de la obra se estima que sea de entre 3 y 4 meses.



### LAZKAOMENDIKO UR DE- POSITOKO URA GARBITZE- KO FILTRAZIO SISTEMA JARRI DA

### SE HA COLOCADO UN SISTEMA DE FILTRACIÓN EN EL DEPÓSITO DE AGUA DE LAZKAOMENDI

Intxustitik Lazkaomendiko ur depositura iristen den ura oraindik gehiago garbitzeko filtrazio sistema bat jarri da auzoko deposituan. Orain arte ere urak osasun baldintza guztiak betetzen bazi-tuen ere, une batzuetan uraren kolorea ez zen egokiena. Filtra-zio sistema aldatuta orain arteko arazoak konpontzea espero da. Deposito honetatik Lazkaomen-diko baserrietara ura bideratzen da. Lanen kostua 18.000 euro ingurukoa izan da.

Se ha procedido a la sustitución de filtros y mejora del depósito de agua Lazkaomendi. Debido al estado de los filtros, si bien el agua cumplía con los requerimientos de sanidad, había momentos en los que el color de la misma no era el más idóneo. Se espera que con las mejoras realizadas esta problemática desaparezca. Desde este depósito se surte a los caseríos de Lazkaomendi. Los trabajos han costado alrededor de 18.000 euros.

### ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ETA KIROL ZERBITZUAK

Etxez etxeeko zein kirol zerbitzuak esleitzeko prozedurak irekita jarratzen du. Etxez etxeeko laguntzari dagokionean, hiru eskaintza aurkeztu dira: Eulen, Clece eta Goxara. Une honetan hiru hau>tagaiek aurkeztutako eskaintzak aztertzen ari dira.

Kirolegiko zerbitzuen kasuan, guztira bi eskaintza aurkeztu dira: Goierri Kirol Teknikoak eta Abilion Kirol Kudeaketa eta Errendimendua. Gaur egun Clece eta Goierri Kirol Teknikoak dira kirolegiko zerbitzua eskaintzen dutenak. Egungo kontratuak irai-lean amaitzen dira.

### AYUDA DOMICILIA- RIA Y SERVICIOS DEL POLIDEPORTIVO

Siguen abiertos los procedimientos de adjudicación del servicio de ayuda domiciliaria como los del polideportivo. En el caso de la ayuda a domicilio, se han presentado tres ofertas: Eulen, Clece y Goxara. En este momento se está procediendo al análisis de las ofertas.

Para prestar los servicios del polideportivo se han presentado dos ofertas: Goierri Kirol Teknikoak y Abilion Kirol Kudeaketa eta Errendimendua. Actualmente los servicios los prestan Clece y Goierri Kirol Teknikoak, respectivamente. Los contratos actuales, vencen en septiembre.

### UR KONTAGAILUEN PARKEA BERRITZEN ARI DA UDALA

2015ean hasitako bideari jarraituz, Lazkaoko Udalak herriko ur kontagailuen parkea berritzen jarraitzen du. Lau urteko plangintza izango da, 2015etik 2018ra bitarteko, eta urte tarte horretan aldatuko dira kontagailu guztiak. 2015ean 307 kontagailu aldatu ziren, iaz 98, eta aurten 198 aldatuko dira guztira. Gainerako 172 kontagailuen aldaketa datoren urtean egingo da. Guztira, 775 kontagailu aldatuko dira eta horrek 71.564 euroko gastua izango du.

### EL AYUNTAMIENTO ESTÁ RENOVANDO EL PARQUE DE CONTADORES DE AGUA

Dentro de la planificación establecida en 2015, el Ayuntamiento sigue renovando el parque de contadores de agua del municipio. Tal y como se estableció en su día, el cambio de contadores se realizará entre 2015 y 2018, y en total se cambiarán 775 contadores. En 2015 se cambiaron 307, el año pasado 98, este año se cambiarán 198 y el resto, 172, en 2018. Renovar el parque de contadores supondrá un gasto de 71.564 euros.



Aurreko aldizkarian, San Prudentzio festak ate joka genituela, festekin lotura zuzena duten eta askotan arazo bihurtzen diren hiru gairen inguruan hausnarketa egitera gonbidatzen genuen. Behin festa egunak igarota, lerro hauen bidez zoriondu egin nahi zaituztegu, eta eskerrik eman.

Festak giro bikainean igaro direla uste dugu, baldarkeria eta jarrera gaitzesgarri nabarmenik gabe. Eta hori, lazkaotarren gehiengoak erakutsi duzuen jarrerari eskerrak izan da.

Asko izan zarete egun horietarako antolatutako ekintzetan eta ekitaldietan parte hartu duzuenak. Denok jarri duzue zuen aletxoa festak horren giro bikainean igaro zitezen, eta asko izan zarete baita ere festetako ekintzak antolatzeko eta garatzeko zuen denbora eta esfortzaua eskaini duzuenak. Zuentzat aitorpen bi-kotza. Eskerrik asko besteoi gozatzeko aukera eman diguzuelako.

Eta azkenik, mila esker batez ere erasorik gabeko, gehiegizko alkohol kontsumoaren prebentzioaren eta lo egin nahi dutenen errespetuaren alde udalak martxan jarritako kanpainarekin bat egin duzuen herriko merkatari eta ostalarri guztiei. Seguru gaude zuen parte hartzea lagungarri izan dela hiru mezuak lazkaotarrengana helarazteko.

En la anterior revista, con los San Prudencios a la vuelta de la esquina, invitábamos a una reflexión en torno a tres temas que con frecuencia tienden a convertirse en un problema que acaba por empañar las propias fiestas. Ahora, una vez finalizadas, queremos felicitaros y daros las gracias a través de estas líneas.

Creemos que las fiestas han transcurrido en un excelente ambiente en el que las gamberradas o los comportamientos reprobables se han reducido a la más mínima expresión. Y eso, ha sido gracias a la actitud que habéis mostrado la inmensa mayoría de los Lazkaotarras.

Habéis sido muchos los que habéis participado en las actividades y actos programados. Todos habéis puesto vuestro granito de arena para que las fiestas hayan transcurrido en ese excelente ambiente. Sois muchos también los que habéis ofrecido parte de vuestro tiempo y esfuerzo para organizar y desarrollar todas esas actividades. A vosotros un doble reconocimiento. Gracias por habernos dado la posibilidad de disfrutar.

Y para finalizar, un especial agradecimiento a todos los comerciantes y hosteleros que habéis apoyado la campaña puesta en marcha desde el ayuntamiento a favor de unas fiestas sin agresiones, de un consumo moderado del alcohol y el respeto hacia el descanso de los demás. Estamos seguros de que vuestra colaboración ha ayudado a calar los mensajes entre los lazkaotarras.

# Mila esker guztioi !!

